

Mandela amerikarra

Giza eskubideen Benedetti saria eman diote Leonard Peltier preso politiko indiarrari; 35 urte daramatza AEBetako espetxe batean.

Gotzon Hermosilla

Leonard Peltier Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) preso politiko indiarraren auziak beste jite bat har dezake datozten asteetan. Mario Benedetti Fundazioak iragarri du hari emango diotela idazle uruguaitarraren izena daraman giza eskubideen lehenengo saria. Peltierrek 35 urte eman ditu kartzelan, eta preso askatzeko orain arte egindako eskaera eta ahalegin guztiak alferrikakoak suertatu dira. Ikusteko dago saria jasotzeko gauzak aldatuko ote dituen, baina, gutxienez, auziaren inguruan zegoen isiltasuna hausteko balioko du.

Datorren asteazkenean, irailak 14, Mario Benedettiren jaiotzaren urteurrenean hain zuzen, emango diote saria Peltierren ordezkari bati Montevideon (Uruguai), Errepublikaren Unibertsitateko paraninfoan egingo den ekitaldian. Bihar, saria jaso baino bi egun lehenago, 67 urte beteko ditu Peltierrek. Horietatik, erdiak baino gehiago eman ditu espetxean. «Mandela amerikarra» deitu izan diote inoiz, eta behin baino gehiagotan proposatu dute Bakearen Nobel saria jasotzeko.

Grand Forksen jaio zen Peltier (Ipar Dakota, AEB). Gurasoak Ameriketako herri autoktonoetako kideak ziren, chippewa eta sioux etnietakoak. Indiarrentzako erreserba batean hazi zen, eta, gaztetan, AIM Ameriketako Indiar Mugimenduko kide bilakatu eta indiarren eskubideen aldeko borrokan engaiatu zen.

1975eko ekainean, tiroketa bat gertatu zen Pine Ridge erreserban (Ipar Dakota). Han, FBIko agente bi, Ronald Williams eta Jack Coler, eta ustez bi polizia aurre egin zien AIMko ekintzaile bat, Joe Stuntz, hilik suertatu ziren. Tiroketa horretan parte hartu izana leporatu zion Peltierrek Leonard Peltierri, eta haren izena sartu zuen hamar gaizkile bilatuen zerrendan. Hilabete batzuk geroago, 1976ko otsailan,



Leonard Peltier. BERRIA

Kanadan atxilotu zuten Peltier, eta AEBetara bidali zuten. Han epaitu zuten, eta hil arteko bi kartzela zigor ezarri zizkioten.

Zalantza handiak

Hala ere, zalantza handiak daude Peltier izan ote zen polizia tiro egin ziena. Horien artean nabarmena lekukoen testigantzaridagokio. Hiru lekukok esan zuten Peltierrek tiro egin ziela polizia, baina geroago adierazi zuten Peltierrek mehatxatu eta presionatu egin zituela, haren kontrako testigantza lortzeko. Beste aldetik, Peltier Kanadatik AEBetara estraditatzeko, Myrtle Poor Bear izeneko emakume indiar baten testigantza baliatu zuen FBIk, baina geroago frogatu zen emakumeak ez zuela Peltier ezagutzen eta ez zela izan tiroketa gertatu zen lekuan.

Hori dela eta, erakunde eta giza eskubideen aldeko ekintzaile askok Peltier libre uzteko eskatu dute urte hauetan guztietan. Besteak beste, Nelson Mandela, Rigoberta Menchu, Desmond Tutu, Jesse Jackson, Amnesty International eta Europako Parlamentuak eskatu dute Peltier libre uzteko. Bere eskaeran, Amnesty International erakundeak adierazi zuen «zalantza» handiak zituela Peltierren kontrako epaiketaren inguruan, aldeko lekukoei dei egiteko eskubidea urratu ziotela, eta «Peltierren sinismen eta jardue-



Peltierren askatasuna eskatzeko agerraldi bat. BILL HACKWELL

ra politikoek bere atxilotze eta epaiketaren eragina izan dutelako susmoa» zuela.

Peltierren kontrako frogan ahulezia gorabehera, beste zerbaite ere argudiatzen dute haren askatasunaren alde lan egiten duten taldeek. 1973ko otsailaren 27an, AIMko berrehun kide inguruk Pine Ridge erreserbako Wounded Knee herria okupatu zuten, indiarrek jasaten zuten bazterkeria, ustelkeria eta egoera txarra salatuz. Okupazioak 71 egun iraun zuen, eta, denbora horretan, tiroketa ugari gertatu ziren militanteen eta herria inguratu zuten FBIren agenteen artean, eta hainbat hildako egon ziren. Okupazioa amaituta ere, indarkeria giroa ez zen baretu, eta hurrengo urteetan argitu gabeko hilketak, Poliziaren jazarpena, AIMren zenbait buruzagiren desagertzea eta antzekoak gertatu ziren.

AEBetako jatorrizko herrien eskubideen aldeko elkarteek uste dute indarkeria eta jazarpen tesuinguru horretan kokatu behar

dela Pine Ridgeko gertaera, eta Peltier askatzea indiarren eskakizun historikoak aintzat hartuko litzukeen politika berri eta orokorragoa erdiesteko urrats gisa hartzen dute.

Hirugarren argudioa ere erabiltzen dute Peltier berehala askatzeko eskatzen dutenek. AEBetako legegaren arabera, kartzelan 30 urte bete dituen edozein presori zinpe-

Hiru lekukok Peltierren aurkako testigantza lortzeko presioak jasan izana salatu zuten

ko askatasuna emateko aukera dago, beste delituri egiteko arriskurik ezean. Peltierren abokatuek uste dute horixe dela preso indiarren kasua, eta hura askatzeko eskatu dute; arrakastarik gabe, baina. Barack Obama AEBetako presidente hautatu eta hurrengo egunean, iritzi publikoari zuzendutako eskutitza kaleratu zuen Peltierrek, eta, horretan, itxaropentsu agertzen zen, «AEBetako

historian lehenengo aldiz jatorri afroamerikarrek presidente bat egoteak» auzia konpontzeko balio zezakeelakoan.

Sari desberdina

Honako hau da Mario Benedetti Fundazioak ematen duen giza eskubideen lehenengo saria. Aurreantzean, urtero emateko asmoa dute, fundazioaren administrazio batzordeko kideek adierazi duteenez.

Sari horrekin, giza eskubideen arloko beste sari batzuekin erabiltzen diren irizpideei kontra egin nahi diete, Ricardo Elena fundazioaren administrazio kontseiluko kideak esan duenez. «Askotan ikusi dugu sari ospetsuak eman dizkietela genozida gisa nabarmendu diren pertsoniei», adierazi du Elenak, eta, horren adibideztat, Henry Kissinger AEBetako estatu idazkari izandakoa aipatu du. Bakearen Nobel saria eman zioten urte berean, 1973an, Augusto Pinochet agintaren eraman zuen estatu kolpea babestu zuen Kissingerrek Txilen.